

**Publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País**


---

# JAUNAREN BIDETAN

(Jesus'en bizitzako Amar irudi)



SAN SEBASTIAN  
1959



A U G U S T I N   Z U B I K A R A I

# JAUNAREN BIDETAN

(Jesus'en bizitzako Amar irudi)

## I R U D I A K

- I. ERRAMU ARTEAN
- II. JERUSALEM
- III. AZKEN APARIA
- IV. GETSEMANI
- V. JUDAS
- VI. PILATOS'EN ETXIAN
- VII. JERUSALEM'GO ALABAK
- VIII. KURUTZEAN
- IX. BAKARTADEAN
- X. ALLELUIA

## A N T Z E Z L A R I A K

MUTILTXOAK: JONATHAS, NOEMI, ABEL, ELEAZAR, ISMAEL (itsua), SAMUEL, ISAAK.

GIZONEZKOAK: IRAGARLE, ZABULON (Bethania'ko bertsolaria, agure igar okertua); GOG (demonioz beteriko gaztea); RUBEN, BAAL, OZIAS (gazteak); JESUS, PEDRO, JUAN, SANTIA-GO, MATEO, JUDAS, beste zazpi APOSTOLUAK (itzik gabe); MALKO; ZEKEN (demoniña); PILATOS; TOBIAS, ELIAS (eleiz-gizonak); RUBEN, BOOZ, JOSUE, Noe (erri-zaindariak); JEREMIAS (agure zar-egiña).

EMAKUMEAK: MARIA, MADALENA, M. JAKOBA, M. KLEOFAS, M. SALOME; AINGERUA.

## I. ERRAMU ARTEAN

JONATHAS, NOEMI, ABEL, ELEAZAR, ZABULON, ISAAK, ISMAEL, SAMUEL,  
GOG, RUBEN, BAAL, OZIAS, JESUS, APOSTOLUAK, UMIAK eta ERRITARRAK

*Jerusalen'en ingurutan*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik, kantuz. Doñua: Ondarru'n abestu oi dana.*)

Fedeko egia bat  
kantuzko moduan,  
zer pena pasa zuan  
Jesus'ek munduan.  
Ia bada kristauak  
aditu kontuak,  
izan bear genduen  
zerutik kanpuan,  
Jesukristo il ez ba litz  
kurutze santuan,  
Jesukristo il ez ba litz  
kurutze santuan.

Ume eta gizonak,  
andra ta agurak,  
Jerusalem'go atetan  
Jesus an sartzean.  
Hosana ta txaloka,  
kantu ta oyuka,  
Nok igarri orduan  
gero ze etorko zan?  
Negar orraitik Jaunak  
bere biotzean,  
ekialako berak  
pekatua zer zan.

(*Oyala zabaltzean JONATHAS, NOEMI ta ABEL, iru mutil-*

*txo gaizto, lurrean etzanda egoten dira. Beriala jaiki ta urrun-duteko asmos dira, baña...)*

NOEMI.—Ekatzu makilla ori.

JONATHAS.—Neuria da.

NOEMI.—Ez da.

JONATHAS.—Norena ba?

NOEMI.—Kaifas'nea.

JONATHAS.—Esaten dozulako be gero!

NOEMI.—Esan ez? Zegaitik ez?

JONATHAS.—Nundik eta zelan dauka berak?

NOEMI.—Amak emon eutsan.

JONATHAS.—Aren amak? Nundik atarata?

NOEMI.—Bai, amak bai, atzo gabaz.

JONATHAS.—Orixe da edozer esatia!

NOEMI.—Neuk ikusi neban emoten. Zegaitik esan ez?

JONATHAS.—Zera ikusi.

NOEMI.—Ez da ba egia, Abel?

JONATHAS.—Orrek ze esango dau ba, bere bildurrez bizi da ta memeluo?

ABEL.—Memelua ni? Nai dozu beste bein orixe esan ezetz?

JONATHAS.—Zegaitik ez?

ABEL.—Nai dozu kolpe egin ta lurrian zapaldu?

JONATHAS.—Zeñeri kolpe, nori?

ABEL.—Goliat zariala pentsa bestela be!

JONATHAS.—Eta zu Dabid, ezta?, memelo zistriñoi alakuo?

ABEL.—Ostera be memelua niri deitu? Berba asko egiten ba dozu gero... Txo...!

NOEMI.—Tira, tira, naikua da ta.

JONATHAS.—Egin ez zugaitik? Zein zara ba?

ABEL.—Zuk lurraldi musu emon naitzazu ezta?

JONATHAS.—Sanson zara zu bestela be orretarako-ta!

ABEL.—(Berotuta.) Mekatxis! Zuk niri kopiak?

*(Burrukan oratu ta ekinalditxoa egiten dabe alkarrak ezin menderaturik. NOEMI eurak ezin barinaturik ibiliko da, alperrik. JONATHAS beian geratzen da zartadaka. Bere gañean ABEL, arro.)*

NOEMI.—Laga egiozu, itxi gixajo orrerri.

ABEL.—Oneri laga? Ez beintzat txil atara eragin arte, merezi dau-ta.

JONATHAS.—Ikusiko dozu, txo, urrengo atrapaten zaitudanian. Amak be etzaitu salbako ba!

ABEL.—Beti urenguan? Urenguan beti? Orain zegaitik ez? Ia... ia... Nun dira zure arrokeriak?

NOEMI.—Laga egiozu, itxi bein.

ABEL.—Ezetz ba txil esan arte. Txil?

JONATHAS.—Ez! Gure kalian atrapauko zaitut oindiño.

ABEL.—Txil?

JONATHAS.—Ez! Ez! Euzkirkik eztozu geyago ikusiko ba!

ABEL.—Urenguan beti? Esaten dozulako be gero!... Irugarrenez esango dautsut. Txil?

(*ELEAZAR mutiltxua sartzen da bixkor, arnas estuka. Burredun ikustean pixkat atzeratzen da, baña beriala kantari... Doñua: "Oi mutil kopetillun".—Azkue, C. 186.*)

ELEAZAR.—Beti auzkan zabiltzen lagun gaitzo gangar,  
ba zenki zein datorren etziña ain baldar.

JONATHAS, NOEMI ta ABEL.—Guregan zein datorren esaizu mesedez,  
zein datorren esan ba mesedez.

ELEAZAR.—Nazaret'eko Jesus guregana dator,  
beregan gaitezen dan danok maitekor.

JONATHAS, NOEMI ta ABEL.—Oi, ori da barria, barri zoragarri  
                                  Oi barria, biotzen pozkarri.

ELEAZAR.—Gure errian atetan dago goiz goizetik,  
umiak jun gaitezen beraren atzetik.

JONATHAS, NOEMI ta ABEL.—Gutazen danok bat batez, danok jun  
gaitezen,  
                                  Jesus ona goratzen, txalotzen.

(*Juaten dira. Mutiltxoak urtenaz batera ZABULON, Bethania'ko bertsolaria sartzen da. Makur-makur, erdi tatarrez Astiro itz egingo dau, penaz, nekes... itzei indarra emonaz.*)

ZABULON.—(*Mutiltxoak juan diran tokira deyez.*)

Mutil...! Mutil...!

Ori da! Iges arin!

Nik ezin segirik egin!  
Tatarrez be naiko zeregin.

Bethania'tik nator tatarrez,  
soña ta gogua baldarrez,  
Jesus ori ikusteko garrez,  
errukitzen ete dan, negarrez.

Errukitu! Errukitu!  
Nire gorputza laster da kitu.  
Larogei urte lepoan ditu...  
asko geyago ezin loditu.

Enaz ointxe asko geyago,  
indarrak geroago ta aulago,  
gorputza iñioiz baño lotuago...  
Ai Jesus! Jesus! Nun ago?

ISAAK.—(*Mutiltxua. ZABULON'eri begira geratzen da sartzean.*)  
Ene, Bethania'ko bertsolari,  
nündik zabiz, errukarri?

ZABULON.—Zeuk daruazun bidia...  
orixe baita neure kezkia.  
Ikusi nai mirari egillia,  
ames... ames aren errukia.

ISAAK.      Jesus laster ei dator,  
origaitik nator.

ZABULON.—(*Errukitsu.*)  
Emoidazu esku biguna,  
mutikotxu ezezaguna.  
Emon zure laguntasuna.  
Eutsi... eutsi... kutuna.

ISAAK.      Nik arin nai jun baña,  
arin eldu nai mendi gaiña.

ZABULON.—Eutsi. Ekatzu eskutxuoi,  
ez kezkatu bigunoi.  
Nazaretaren arpegioi  
laster dogu begira bioi.

(ISAAK eta ZABULON, alkarri lagunduaz, juaten dira. ISMAEL eta SAMUEL agertzen dira. Kantuz dagie euren jarduna.

*Doñuak: ISMAEL'ek: Arantzazu'ko Euskal Poeman agertzen dan doñu zarra. SAMUEL'ek: "Bozkario, bozkario".—Azkue, C. 741.)*

ISMAEL.—(*Nekatuta dator. Itsua.*)

Urrundik bide luze  
ta itsua illunpe,  
errukarri onen gure  
ifior ez nik uste.  
Ainbeste illunpetan  
noiz arte izango ete,  
beti irautekotan  
iltzea ez obe?

SAMUEL. Poztu zaite, biztu zaite, adoretu Ismael,  
laster dogu Nazaret'eko Jesus ori billatzen,  
laster dogu gure poza, gure kezka beteten.

ISMAEL. Argia beti ames,  
ikusteko garrez,  
dana salduko neuke  
ikuste ordañez.  
Jesus'ek al ba leuke  
nitzat mirari ori,  
musuka jango neuke  
argian Jaun ori.

SAMUEL. Poztu zaite, biztu zaite, adoretu Ismael,  
Zuri beira, zure kezkaz Jesus dago nimbaiten,  
laster dogu gure poza, gure kezka beteten.

(*Juaten dira, geldiro. GOG, RUBEN, BAAL eta OZIAS zaratatsu datozi. Lotuta dakarre GOG, demoniñoz beteriko gizona. Onek gogor dagitse iges egin guraz. Antzeztokian diran birtartean burruka ori bizi bizi erabilli biarko dabe.*)

GOG.—Laga egidazue. Kendu! Jun emendik!

RUBEN.—Jesus'ek ikusi barik etzaitugu lagako.

BAAL.—Zu etzara gizon. Diabruak daukazuz barruan.

OZIAS.—Diabruen mende zagoz. Jesus'ek atarakotzuz.

GOG.—Kendu ortik! Laga baketan, zoruok alakuok.

Betiko ondatuta naz. Zuen gaiztakeriak nigan sartu dira.

RUBEN.—Zu etzara olako, Gog.

OZIAS.—Ba dakigu laster gizonduko zariana.

GOG.—Kentzeko emendik! Txarri biurtua naz. Bota nagizue txarri artera.

BAAL.—Jesus'ek ikusi zaitzala egingo dogu.

GOG.—Jesus'ik ezin neike ikusi. Zazpi gizaldiren okerrak nigan sartu dira. Eba'ren atzetiko zitalkeri guztiak nire odolean sartu dira.

OZIAS.—Jesus'ek osatu zaitzala alegin egingo dogu.

BAAL.—Nazaret'eko mirarigilliak garbituko zaitu. Etorri gugaz.

GOG.—Lurpean bizirik sartu nagizuela nayago dot.

RUBEN.—Zure emazte ta umiak zure errukiz dira, zure negarrez.

GOG.—Nire emazte ta umien pekatuak iruntsi nabe. Iruntsi betiko!

OZIAS.—Etzaite olako. Laster gara Jesus'en bidian.

GOG.—Itxasoaren olatuetara jaurti nagizue erruki barik. Jaurti bilden barik!

RUBEN.—Zure osasunaren alde diardugu, Gog. Etzaite olako buru gogor.

BAAL.—Etzaite olako gaizto.

GOG.—Barruan daruadan suaz erre zaitezela egingo dot. Erre ta kixkaldu.

OZIAS.—Len etziñan olako.

GOG.—Laga niri! Kendu ortik!

RUBEN.—Bakia lortuko dozu Jesus'en aurrian.

GOG.—Nire bakia sua ta gorrotua izango dira. Kendu zaiteze! Kendu! Laga!

BAAL.—Ara... ara... Or dator Jesus, itxuraz.

OZIAS.—Otoi egiozu berari.

GOG.—(*Gero ta indartsuago.*) Zoruok alakuok, erreten laga nagizue!

BAAL.—Begira zenbat jente datorren bere inguruau.

RUBEN.—Ba dakizu zenbat mirari egin daben. Zu be osatuko zaitu, osatuko zaitu.

BAAL.—Ara Jesus! Ara Jesus!

GOG.—Osatu ni? Ja, ja, ja, ja!

(*Tengada gogor bat egin ondoren eurekandik uluka iges egiten dau bizi.*)

RUBEN.—(*Berari jarraituaz.*) Gog! Gog! Gog!

OZIAS.—Etzan gizon, diabru baño.

BAAL.—Aren indarrak...! Iñó!

RUBEN.—Etziran gizonarenak, diabruarenak baño.

BAAL.—Iñók osatzekotan Jesus'ek garbituko eban da.

RUBEN.—Egin doguna baño geyago ezin geinkian beintzat.

OZIAS.—Ara nun datorren Jesus. Pixkat geitxuago eutsi al izan ba'geuntsa, al izan... Auxe da penia!

(Umiak datog kantari. *Hosanna, hosanna! Jantziak zabaldu ta botaten ditue Jesus igaroteko dan bidean. Erramu ta pal-maz goratzen dabe, antzestokian irauten dabent artian. Ume ta gizon inguruau. APOSTOLUAK bidea zabaltsen alegintzen dira, umiak baztertzen. Jesus'ek baketan itxiteko diñotse se-ñakin, umiak lagateko beregana urreratzen. Umiak besarka-tuten dauz, laztanez bete, irribarrez inguru guztietara begira. Abeslariak andikiro, altsu, sutsu: "Hosanna! Hosanna..." abestuten diardue, Almandoz'en "*Pueri hebraeorum*" en za-tia. Abestia luzatu bedi irudiaren ikusgarritasuna bizi zain-du leiken artean.)*

## O Y A L A

### II. JERUSALEM

IRAGARLE, JESUS, NOEMI, JONATHAS, ABEL, ISAAK, APOSTOLUAK,  
EMAKUME ta ERRITARRAK

#### *Jerusalem inguruau*

IRAGARLE.—(*Kantuz. Doñua: "Biotzetik miñez nago".—Azkue.*)  
Jerusalem'ko txaloak oraindik ixil barik,  
Mendi gañean dago Jesus penatan beraitik.  
Zizpuruz beterik Jerusalem gaiztoagaitik.

Gaiztakeritan sartua bizi da erri ori,  
Jaunaren kutun izanik lepoa emonaz berari.  
Beragaitik dabil Jesus lotuta peniari.

(*Oyala zabaltsean egal baten JESUS. Umetxoak bere ingu-ruau. Atzerago Apostolu ta jenteak, aldratan, atsedan artzen.*)

NOEMI.—(*Errukiz.*) Zegaitik zagoz ain kezkati, ain itzal ta illun,  
Jesus?

JONATHAS.—Txaloka ta txaloka erabilli zaitugu. Eriñotzik be ez da

geratu osorik bide bazterretan. Zegaitik orain begiak malkoz beterik?

ABEL.—Nik ba neki Jauna zeñek negar eragiten deutsun...

JONATHAS.—Bai, zera zuk, memelo orrek.

ABEL.—Ostera be? Neuri burletan dabil, Maixua. Neuri irrika egun guztian. Edonok esango leuke onek beronek, zera... eulirik be eleuke ilko ta.

ISAAK.—Ez jaramonik onei, Jesus, beti alkarri tirrika ibilten bañeztakie-ta.

APOSTOLU BAT.—Ia txotxo, kendu emendik. Jesusek atseden artu naiko dau ta ospa emendik, zeion umekeria lagata.

ISAAK.—Orrek ostera... beti kendu... kendu... Zelakua da beroi?

JESUS.—Itxi egiozue umetxoei nigaz egoten, Umetxoen biotz garbiak dira nire pozik andien. Ikasi zuek danok be umeen antzeko izaten eta biziten. Biotz guztiak umetxo onein lakoak ba lira... (*Astirotsu jaiki ta Jerusalem'eri begira jarten da. Beste guztiak berak zer esango ete daben kezkaz.*) Jerusalem! Jerusalem! Jaungoikuak maite maite zaitun erri eder ori! Nire Aitak begi begikoa zaitun erri zoragarri ori! Lizunkieria gaindu zaitu; ordikeriak ondatu zaitu! Gorroto ta ikusi eziñak itsutu, arrokeriak puztu zaitu; Jerusalem! Jerusalem! Gaur ba da ere ezagutu al ba zengi bakea zek eta zefiek ekarri leikezun...! Bafia itsu itsurik bizi zara. Egun latzak etorriko dira zuretzat. Zure arerioak estutu ta inguratuko zaitue. Zu eta zure semiak birrindu ta esestuko zaitue eta ezta geratuko arri batik be besteren gañean, zure Jaungoikoa ezagutu eztozulako zuregan etorri danian. Jerusalem! Biurtu noiz bait zure begi ta biotzak Jaungoiko Jaunari!

(Abeslariak Goikoetxearen “Yerusalem” abestuko dabe barrutik.)

## O Y A L A

### III. AZKEN APARIA

JESUS, PEDRO, JUAN, ANDRES, SANTIAGO, FELIPE, BARTOLOME,  
TOMAS, MATEO, ZEBEDEO, TADEO, SIMON eta JUDAS

*Azken apari tokia. Mai luzea. Apostoluak mai inguruan. Ezitsu ta samur egin bedi irudi au. Abestiak gozo ta bigun*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik. Kantuz. Doñua: "Uso, luma gris gaxua".*—Salaberri.)

Apostoluak batuta Maixu onan inguruan,  
Pazku eguna ospatzen Jesus'ek nai moduan.  
Nok uste euren artian zanik Jaunaren saltzallerik?  
Ase ezin, ezin asetu Judas'en biotz zitalik.

Agindu bigun biguna Jaunak zabal emon dauna.  
Agindu miraritsua, Jaunak orain emonikua.  
Bere inguruan egonagaitik salduko eban laguna,  
Jesus'ek berba gozoetan guztiontzat maitasuna.

(*Oyala zabaltzean JESUS Apostoluei oñak garbitza amaitzen diardu. PEDRO'ren ondora urreratuaz;*)

PEDRO.—Niri ez, Maixua, niri ez!

JESUS.—(*Maitetsu.*) Pedro...!

PEDRO.—Zegaitik, baña, zuk niri oñak garbitu?

JESUS.—Nik egiten dodanaz etzara konturatzen. Uurrengo baten igarri ta jakingo dozu.

PEDRO.—Sekula bez zuk niri oñik garbitu, Maixua. Sekula bez. Ez!  
Ez! Ezta... ezta... Sekula bez!

JESUS.—Garbitzen ez ba zaitut eztozu nirekin parterik eukiko.

PEDRO.—Ola ba da, ori benetan ba diñozu, ez bakarrik oñak, bai eskuak eta burua be.

JESUS.—Garbi dagonak garbitza naiko dau, danez garbi dalako. Zuek garbi zagoze... baña ez danok. (PEDRO'rei oñak garbitzen dautsoz. Mai burura urreratuaz.) Ba dakizue zuekin zer egin dodan. Maixua deitzen daustazue. Ondo deitu be. Nik, Maixu ta Jauna izanik garbitu ba zaituet, ikasi alkarrri bardin egiten. Irakatsi asko emon nai izan dautsuet. Laster dator nire ordua. Laster. Azkenengo kontsejuak emoten nabil, azkenengo aginduak. Laster... Zuetariko batek saldu egingo nau.

(*Apostoluak kezkaz lotutene dira.*)

MATEO.—Neuk ez beintzat.

PEDRO.—Saldu diñozu? Zegaitik ori?

SANTIAGO.—Saldu? Zelan saldu?

PEDRO.—Zegaitik eztozu argiago itz egiten?

MATEO.—Erakutsi egin biar zenduke zein dan ori. Zeñek saldu zein-ke, ba, emen?

PEDRO.—(JUAN'eri.) Zeñegaitik diño?

JUAN.—(JESUS'eri.) Zein da ori, Maixua, zein?

JESUS.—Bustiko dodan ogia emoten dautsadana, axe izango da.

(*Astirotsu ogi zati bat busti ta JUDAS'eri emoten juaten da. Apostoluak kezkaz...*)

JUDAS.—Ni ete naz ba, Maixua, ni?

JESUS.—Zeuk esan dozu. (*Samur.*) Egin biar dozuna arin egizu.

(*JUDAS JESUS'eri begira geratzen da, lotsaz. Gerotxuago lotsa orrek gainduta, makurtuta, iges egiten dau. Beste Apostoluak zurbilduta lez gelditzen dira, zer egin estakiela, itzik esateko adore barik. Barriro bere tokira urreratuaz.*) Orain Jaungoikuaren Semia goratua da ta Jaungoiko berbera beragaz. Semetxouk: Pixka-baten zuekin nago. Laster juan biarko naz, laster.

PEDRO.—Nora jun? Geu lagata ez beintzat.

JESUS.—Nuan lekura ezin zeinkie etorri.

PEDRO.—Neu etorri ez?

JESUS.—(*Samur.*) Pedro! Pedro! (*Abestia leun-leun. Maitasun abestia. Haller'en "Cenantibus illis".*) Agindu barri bat emoten dautsuet. Alkar maite egizuela. Neuk maite izan zaituedan lez, zuen artian be maite izan zaiteze. Orretantxe ezagutuko zaitue nire bialduak zariela. Alkarrentzako maitasunean. Bene-benetan nai izan dot gaur Pazko au zuekin igaro.

PEDRO.—Kezkatuta lagaten gaituzu gaur dabizuzan esanekin.

JESUS.—Geyago ezin izango dot Jaunkoiguaren erreinuan sartu arte.

PEDRO.—Zegaitik diarduzu baña gaur ain itzal ta illun berbetan?

JESUS.—(*PEDRO'ren esanei jaramonik egin barik ogia bedeinkatu, zatitu ta danei emoten dautse, astirotsu ta maitasunez.*) Auxa da nire gorputza, zuekaitik eskifia. Nire oroz artu egizue beti. (*Kaliza baten ardauna Jaungoikuari eskiñi, ogiaren antzera, bedeinkatu ba bertatik emonaz:*) Kaliza au nire Testamentu barria da. Zuekaitik ixuriko dan nire odolarena... Au egiten dozuenetan, nigaz gogoratu zaiteze beti... beti.... (*Danei emon ondoren, otoi-tzean lez lotuten da une baten. Jaiki ta eskuak goruntz jasoaz.*) Eldu da nire ordua. Guazen danok Jaunari eskerrak emonaz.

(*Apostoluak be JESUS'en antzera eskuak goruntz jasoaz lotuten dira. Abeslariak andikiro ta sutsu "Aintza Jaungoikuari" abestutene ekingo dautse.—P. Bilbao'ren abestia.*)

## O Y A L A

### IV. GETSEMANI

JESUS, PEDRO, SANTIAGO, JUAN, AINGERUA, JUDAS, MALKO, ERRIZAÑAK,  
GIZONAK, ELIAS, TOBIAS eta ISAAK

*Getsemani'ko baratzean. Gaua.*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik, kantuz. Doña: "Aitak e'a Amak".*—P. Donosti, C. 166.)

Getsemaniko ortuan  
Maixua otoiitzean,  
gure pekatu danen astunez izerditan.  
Goiko Jaunaren laguntza nai  
garraztasun a kendu al ba zan.  
Gauaren illunean  
Judas amesetan,  
bere Maixua saltzeko tratuetan.  
Zapukeri okerragorik  
beste batek asmau ezin.

(*Oyala zabaltzean abeslariak Victoria'ren "Una hora" abestuten diardue. PEDRO, SANTIAGO eta JUAN, egal baten, lo. Beste aldean JESUS otoiitzean. Otoi mintsu, itzal, naigabetsuan.*)

JESUS.—Aita! Aita ona! Dan dana al dozu... dan dana... Urrundu, kendu nigandik eginbiar latz au; baztertu nigandik kaliza garratz au... Baña ez nik nai dodan lez... ez. Ez nik gura neuken lez, zeuk nai dozun lez baño. (*Astirotsu Apostoluak dagozan aldera dua. Mattekor, PEDRO lepoan joaz:*) Simon...! Simon...! Lo? Lo?

PEDRO.—(*Ezin itxarturik.*) Zer ~~Jauna~~, zer? Gaba be astuna da ta!

JESUS.—Ordu bete ezin egon zarie esna, itxartuta?

PEDRO.—Jauna! Gaur ibilli be asko egin gara ta!

JESUS.—Zur egon eta erregutu, tentaziñoieta sartu etzaitezen. Go-gua, arimia, prest dago, Simon, baña aragia, gorputza, gaixo. (*Len otoiitzean egon dan tokira dua ta barriro otoi dagi, gero ta kezkatiago. Eskuak goruntz jasoaz:*) Aita...! Aita...!

AINERUA.—(*Bordes'en "Triste naiz biotzetik" ren doñaaz, abeslari agertzen da.*)

Triste naiz biotzetik,  
itzal barrenetik...

Zure Aitaren miña barriz  
geyago oraindik.

Maite zaitu iñor maite izanik,  
ala dalarik itzalago zure errukiz.

JESUS.—(*Kantuz. Doñua: "O Jesus gurutzen".—P. Donosti.*)

Aitaren bialdua, nigana zetan zatoz orain?

Nire gogua ez ete da Maitasunari ernai?

Garratz eta itzalez arkitzen naiz, Aingerua.

Dar-dar-dar nire gorputza, lerturik nire biotza.

AINERUA.—Adorez zaite Jesus

Aitaren aginduz;

gizonaren errukiz ekin,  
ez gaindu penekin.

Gizona salbatzekotan dalarik,  
zure odolaz izango da bakar bakarrik.

JESUS. Naizen guztia eskintzeko gertu naz beti.

Aitaren borondatea nigan osotu bedi.

Dakartzun kaliz ortan odol gorritz ikusten naz.

Nire gurariz barik, dana bedi Aitarenaz.

(*Aingerua juaten da.*)

Jauna! Aita! Zure borondatea beti, beti... ta ez nirea.

(*Apostoluekana urreratuaz.*) Ai Simon! Simon! Lo egizue onezkerro. Lo egin ta atseden. Ordua eldu da. Gizonaron Semia pekatarien eskuetan saldua dala ikusi egizue.

PEDRO.—Zer diñozu, Jauna, zer?

JUAN.—Ze pasaten da, Maixua?

JESUS.—Altza... yagi. Ara nun datorren ni salduko nabena. Ara bertan.

(*Apostoluak altzaten dira bildurrez. JUDAS, MALKO, ELIAS, TOBIAS, ERRIZAÑAK eta GIZONAK sartzen dira.*)

JUDAS.—(*Belarrira, MALKO'ri.*) Nik besarkatuten dodana, axe izango da.

MALKO.—Or dagon ori da?

JUDAS.—Ixo! Nik besarkatuten dodana.

PEDRO.—Ene ba da!

JUAN.—Zein dira oneik?

SANTIAGO.—Zetan datozi?

JUAN.—Judas ez da ba ori, Judas?

JUDAS.—(Belarrira.) Laster gero, laster. (JESUS'eri.) Maixua!

JESUS.—(Bigun.) Ai adiskide! Zetan zatoz? Judas! Musu bategaz salduko dozu gizonaren semia? (Gizonei.) Zeñen billa zatoze?

GUZTIAK.—Nazaret'eko Jesus.

JESUS.—(Adoretsu.) Neu naz, (Ori entzutean danak bildurrez atzeratzen dira.) Zein nai dozue, zein?

GUZTIAK.—Nazaret'ko Jesus.

JESUS.—Esan dautsuet neu nazala. Nire billa ha zabize laga onei euren bidian.

PEDRO.—Jauna, nora gu?

JUAN.—Gu zeu lagata?

PEDRO.—Ez nire ezpatiak indarrik ba dau.

(Asarre MALKO joten dau espaciagaz. Onek belarririk odola ikustean berotzen agertu bedi.)

JESUS.—(Zoli.) Pedro! Gorde egizu ezpata ori bere tokian. Uste dozu, nai izan ezkero, nire Aitak aingeru talderik eleukela bialduko danok birrinduteko?

MALKO.—(PEDRO'ri.) Ezpatiagaz niri lotsagalduko orrek? (Jarki ondoren Apostoluak iges egiten dabe. ISAAK sartzen da ikus miñez.) Auxe be euretarra da. Kolpe berari. Eutsi.

(Errizain bat tengadaka asten jako, baña iges egiten dautso ISAAK'ek esanaz.)

ISAAK.—Ni? Nik zer egin dot ba? (Igeska dua.)

(ELIAS eta TOBIAS'ek Errizaiñei JESUS lotzeko agintzen dautse. ELIAS'ek JUDAS'eri diru boltsia emoten dautsa. Abeslariak Victoria'ren "Judas mercator" abestuten asiko dira.)

JESUS.—Lapurra ba nitz lez etorri zarie nire billa ezpata ta guzti. Egunero egon izan zan eleizan zueri irakasten. Baketan lagaten zeusten orduan. Baña auxe da zuen ordua. Zuena eta... (JUDAS'eri begiratuz) gaiztakeriarena.

(JUDAS'ek lotsatuta, JESUS berari begira ikustean, diru boltsia jaurti egiten dau... ta igeska asi.)

## O Y A L A

### V. JUDAS

Egilleak : IRAGARLE, ELEAZAR, NOEMI, ABEL, JONATHAS, ISAAK, JUDAS,  
ZEKEN, JEREMIAS

*Irudia: Urkamendian. Arbola banakak egaletan. JUDAS arbola batetik  
zintzilik dago, urkatuta*

IRAGARLE.—(*Kantuz Doñua: "Iruñako ferietan".*)

Judas'entzat okerrena Jesus'en maitetasuna;  
beretzako mintsuena bere adiskidetasuna.  
Origaitik bere lotsan arbolatik urkatu zan.

Ibilli zan bide onetan Jesus'ekin batean;  
urre garrez ase ezinik jausi zan diru-erpetan.  
Dana galdu azkenian bere zoritzarrean.

MUTILTXOAK.—(*Oyala zabaltzean, bidez bide datozen, JUDAS ikusten  
dabe ta ikaraz beterik:*)

BATEK.—(*Kantuz.*) Ene! Ene! Zein da emen arbolatik zintzilik?  
Ete da ba gaizkillia edo buruz galdua?  
bata dala nai bestia errukarri gaixua.

BATEK. Ezagutzen? Konturatzen? Judas diru zalea!  
Gure begiak ezin sinistu ikusten daben kaltea?  
Zeiñek ete dautsa argitu rozitzarren atea?

GUZTIAK. Oi arlotte, Izkariote, diru zale zekena.  
Diru txanponen egarriaz ase ezin bezitzan.  
Zetarako zure diruak? Zetarako danak?

ELEAZAR.—(*Ikaraz.*) Judas! Judas...!  
ABEL.—Lapurren batek ez ete dau il berau?  
NOEMI.—Jesus'eri deituko dautsagu?  
ELEAZAR.—Jesus'ek artuko daben penia!  
JONATHAS.—Len be aspaldion negarrez ibilten ba daki arek.

ABEL.—Dardaraka nago.

JONATHAS.—Orain be bildurretan memelo ori?

NOEMI.—Zeren bildur?

ABEL.—(JONATHAS'eri) Barriro be? Neu ez ipini gero...!

ELEAZAR.—Ni neu be ba...

NOEMI.—Jesus'ek osatu egin lei. Ildakoak biztuten ez daki ba?

JONATHAS.—Orrek mifien bat ez ete dau euki?

ABEL.—Bai, zerekoo miña.

ELEAZAR.—Zegaitik ez?

NOEMI.—Lapurren batek il egingo eban, dirua ostutearren edo.

ISAAK.—Berori be beti diru billa ebillan-ta... Zekenago zan zekenago...

NOEMI.—Billatu egin biar genduke Jesus.

JONATHAS.—Nun billatu?

ISAAK.—Eskuak lotuta eruan eben atzo. Neuk ikusi neban.

ELEAZAR.—Nora? Zeñek?

ABEL.—Ez egizu guzurrik asmau.

ISAAK.—Noiz atrapa nazu guzurretan ori esateko?

ABEL.—Noiz? Kontaten asiko ba nitza...

ISAAK.—Tira ixilik, sakatzak ataratia nai ez ba dozu. Guzurtia ni? Ni?

ABEL.—Gu danok be biribillak botatene asi ezker...

JONATHAS.—Danok? Niregaitik etzara jardungo kontixu, ezta?

ABEL.—Sekula guzurrik eztozu esan, ala?

JONATHAS.—(Asarre, ABEL'eri zapartadaka asteko eran.) Errepatxi!  
Niri be bai?

NOEMI.—(ABEL'eri sakadaka.) Ala, ospa emendik Jesus'en billa.  
Bixkor gero. Bakarrik gafiera.

ABEL.—Ni? Ni?

NOEMI.—Arin be arin jun be, gure laguna izaten jarraitu gura ba  
dozu.

ABEL.—(Urten aurretik.) Ikuisko dozue gure txabola onduan bakarrik  
atrapaten zaituedanian. Amak be etzaitue salbako ba! (Juaten da.)

ELEAZAR.—Nun ikusi zendun ba Jesus?

ISAAK.—Getsemaniko ortuan, Lotuta eruan eben.

ELEAZAR.—Apostoluak nun ziran ba?

ISAAK.—Nik eztakit. Igleska ikusi nituzan.

NOEMI.—Judas be bai?

ISAAK.—Judas bertan geratu zan.

ELEAZAR.—Zetan? Bakarrik?

ISAAK.—Nik eztakit. Jesus neuk ikusi neban miñez beterik eta entzun  
be bai berari, orri esaten: Judas! Musu (laztan) bategaz saldu-  
ko nazu?

NOEMI.—Ja gero orrek Jesus'en Aitaren zigorra artu daben.

ELEAZAR.—Zegaitik zigorra?

JONATHAS.—(*Kanpora begira.*) Or dator Abel, arin be arin.

NOEMI.—Arnasa be galdu egingo dau orrek, beti itsumustuan, dabilen bildurraz.

ABEL.—(*Kezkati sartzen da.*) Diabrua ikusi dot, diabrua, diabrua!

ELEAZAR.—Nungo diabrua? Orixea da ikara ta bildurra.

ABEL.—Diabrua bai! Dantzan ikusi dot, zaratatsu bere bosteko jar-dunean ta barre algaraka.

ISAAK.—Zeure keixiagaz bildurtuta?

JONATHAS.—Zorotasunak darabizuz zuk, zoro aiziak.

ABEL.—Bere bostian didarrez ebillan: Judas! Judas! Atso txin txin, gaur zintzil.

ISAAK.—Diabruak urkatu dau orrela ba da.

NOEMI.—Zer dauka ze ikusi diabruak?

ELEAZAR.—Euki ez?

ABEL.—(*Kanpora begira.*) Ara! Ara! Begiratu! Ikusi...! (*Bisi bisi igeska.*) Neu enau aatrapauko beintzat!

GUZTIAK.—(*Igeska.*) Neu bez...! Neu bez...!

(*Mutiltxo guztiak iges egin ondoren, egaletan ikusmin ezagutuko dira. ZEKEN-DEMONIÑUA sartzen da dantzari. Judas'en inguruauan burlaz eta isekaz dantzaldi bat egingo dau, bere poza erakutsiaz. Dantzaldia amaitueran JEREMIAS agertuko da. Zuri zuri jantzita dator, iragarle zar-zar antzera. Bera ikustean, bere didarra entzutean, ZEKEN makur makur eginda esku tauko da.*)

JEREMIAS.—(*Zaratatsu ta andikiro.*) Kanpora! Kanporaaa...!!

(*Erdi aldera begira.*)

Ni naz Jaungoikuaren abotsa.

Mundua mundu danetik egia erakusten nabillen Jaungoiko altsuaren didarra.

Eguzkiaren azpian egiten danaren barri zigur zigur dakit.

Moises'en ondoren nabil Jaungoiko altsuaren maitasuna erakutsi ta gizonen okerrak zuzendu guraz.

Gorrototz beterik dira erriak, Ikusi ezifiez garrazturik begiak. Asarre zitalez ustelduta biotzak.

Entzun gizonak eta andrak. Entzun batez be oraindik garbi garbi bizi zarien umetxoak!

Ez alargunik mindu! Ez umezurtzik baztertu! Ez erbestekorik esetsi. Ez beartsu ta ezezikirik erruki barik itxi.

Iñok ez begi bere biotzean anaien aurkako gorrotorik biztu,

Ez aberastasunik geyegi maitatu. Eta batez be, aberastasunen garrez itsututa, ez Jaungoikorik aztu ta saldu.

Gizonak eta andrak! Jaungoikuaren Semia saldua izan da, baña bere odola irakiten agertuko da munduz mundu. Bere saltzallea, urkatuta, ustelduta ezagutuko da, ikasi dagizuen urearen argitasun eta beroaz barik, Jaungoikuaren argitasunpean ibilli, indartu eta biziten!

(*Azkenengo zati oneik esaten diarduan artian, MUTILTXOAK bere ondora urreratzen igarriko dira ikusmin eta jakinmiñez.*)

## O Y A L A

### VI. PILATOS'EN ETXIAN

PILATOS, P. EMAZTIA, JESUS, ERRIZAIÑAK, TOBIAS, ELIAS, ERRITARRAK

*Pilatos'en etxia. Aurrez aurre kale zati bat*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik, kantuz. Doñua: "Txori kanta-tzallea".*—Bordes.)

Etixerik etxe darabille Jesus maitea lotuta, judearrak bere burua eskatuten itsututa, ez errurik, ez okerrik beragan billatuaren ilteko garrez eskatzen.

Pilatos'en etxe buruan judearrak orruka, beretzako gaizkillien kurutze bat oyuka; Pilatos'ek ikusiarren erruge dala Jesus, errian didarra entzun.

(*Oyala zabaltzean PILATOS'en EMAZTIA kantari da, PILATOS bigundu nairik. Doñua: "Ermitatxo bat eidazu".*)

P. EMAZTIA.—Neure Pilatos kutun on ona, nire maitetxu lerdena, zetan olako buruaustetan, zetan ainbeste kezketan? Biotz gaitztoak olakoetan agertzen dira garretan. Didar ankerrei ez jaramonik, zorakeririk ez egin.

Zure andrian kontseju ona  
biotzez garbi diñona:  
arren entzuixu, entzun gogo onez,  
damuz etzaiten naigabesz.  
Jesus orretan ez da okerrik  
ez iñiolako errurrik.  
Baketan laga bere bidean  
guzti-guztion onean.

PILATOS.—Itxi eidazu baketan zeuk, baketan laga.

P. EMAZTIA.—Gau guztian amesetan ibilli naz, Pilatos.

PILATOS.—Gaur? Ta noiz ez? Ames baño besterik egiten ete dozu?

P. EMAZTIA.—Betiko zorakeriekin zabiz. Zartu ta igartu nazenian ola-ko destañez beteten nazu aspaldi. Len etziñan nigaz olako, len.

PILATOS.—Len, orain eta beti.

P. EMAZTIA.—Dana dala, Jesus orregaz kontuz ibilli. Beragan gizon utsa ez dan zerbaite dagola agirian dago. Zer egin dau gizon orrek erritar zoruok orrela jarduteko?

PILATOS.—Ni-neuk ba dakit zelan jokatu. Zeure zeregiñetara juan zaite.

P. EMAZTIA.—Zegaitik ames egin ete dot nik gizon ori errugabia dala?

PILATOS.—Beste ames askoren barri ba ete dakizu?

P. EMAZTIA.—Bein ba da be entzun egidazu. Zoro asko dabiz mun-duan, zoro asko. Nastau nai zaitube. Orrek eztauaka olako itxurarik.

PILATOS.—Amaika ba gabiz gu burua nun dogun eztakigula.

P. EMAZTIA.—Nigaitik diñozu ori?

PILATOS.—*Ba gabiz*, esan dot.

P. EMAZTIA.—Gaur asarre eguna dozu, ezta? Zeure musturrok erakutsi nai dozunari. Baña gizon orrek burukomifík ez daitzula emon. Entzun zer diñotzun zeure emazte... txotxiñak. (*Juaten da.*)

PILATOS.—Zuk baño obeto dakit nik emen gauza garbirik ez danik. Eta txarrena, zer egin jakin ez. (*Txaloka dei egiñaz.*) Ekarri egizue Jesus ori. (*Errizaiñak JESUS ekartzen dabe. Kale aldetik TOBIAS, ELIAS eta ERRITARRAK agertuko dira. JESUS'eri:*) Judea-ren errege zara orduan?

JESUS.—Zeure bostian diñozu ori ala beste batzuk esan dautzue?

PILATOS.—Judearra ete naz ba ni? Zure erritarrak eta eleiz gizonak ekarri zaitue ona. Zer egin dozu?

JESUS.—Nire erreinua ez da mundu onetakua. Emengua ba litz nire ordezkariak alegiñak alegin egingo zituen judearren aurrera ni ez ekarteko. Baña nire erreinua ez da emengua.

PILATOS.—Errege zara benetan?

JESUS.—Zeuk diñozu errege nazela.

ELIAS.—Entzuten zer diñon?

PILATOS.—Ixi!

JESUS.—Ni egia erakustera etorri naz mundura. Orretantxe bakarrik.  
Egiagaz dabillenak nire esana entzuten dau.

TOBIAS.—Etxenduke entzun be egin biar olako guzurrik.

PILATOS.—Ixilik, mesedezi. Egia zer da?

ELIAS.—Zetarako autuetan berari lagundu?

PILATOS.—Nik ez dot errurik billatzen beragan.

TOBIAS.—Zek itsututen zaitu ainbestetan?

ELIAS.—Guzurtia da.

TOBIAS.—Gaizkillea da. Lapurra.

ELIAS.—Errege dala diño, errege. Nungo errege?

(PILATOS'ek eurei jaramonik egin barik leyora urteten dan  
ta erritarrei didarrez:)

PILATOS.—Zer nai dozue egin daidala?

ERRITARRAK.—(Kantuz, Dubois'en "Reus est mortis"-en eresiaz.)

Kurutzean il! Kurutzean il!  
Josi! Josi! Kurutzean josi!

PILATOS.—Zegaitik kurutzetu? Zer dala ta?

ERRITARRAK.—(Kantuz.) Kurutzean il! Kurutzean il!  
Erun! Erun! Kurutzera erun!

PILATOS.—Pazkotarako, oitura danez, gaizkille bat libre laga neiketzue.  
Or dozue Barrabas, danok bildurrez ibilli zaituena. Jesus ala Barrabas nai dozue libre lagatia?

ERRITARRAK.—(Kantuz.) Barrabas'ei laga! Barrabas'ei laga!  
Jesus! Jesus! Kurutzetu Jesus!

PILATOS.—(Bere artean, minduta.) Barrabas!! (Erritarrei.) Pentsau ondo. Jesus ala Barrabas?

ERRITARRAK.—(Kantuz.) Barrabas'ei laga! Barrabas'ei laga!  
Jesus josi! Kurutzean josi!

PILATOS.—(Errizañei, asarre.) Eruan barrura ta zigorrez bete egizue ta arantzazko koroia buruan ipiñi... Judearren errege oneri. (Bere artean.) Ia erri au orrela biguntzen ete dan.

(Errizaiñak JESUS barrura eruaten dabe. PILATOS batetik bestera buruastetan dabil, egon exiñez.)

ELIAS.—Ezin zeinke gizon oneri baketan laga.

TOBIAS.—Entzun dozu erri osuak ze eskatzen daben.

ELIAS.—Erriaren agintari zariala konturatu.

TOBIAS.—Guzurti lez agertu da, Jaungoikuaren aurkako guzurrez.

ELIAS.—Jaungoikuaren aurka dabil beti, kalian, eleizan eta zeure aurrian be bai.

TOBIAS.—Errege dala diño. Nundik norako errege?

ELIAS.—Zesar nun lagaten dau orrek, gure Zesar?

TOBIAS.—Orrek Zesar'entzako menpetasunik ez dau agertu nai.

ELIAS.—Zitalkeria ta sorginkeria baño ez dau erabilli gaixo ta goseti batzuk bere alde jarteko.

TOBIAS.—Bere alde ta danon aurka.

PILATOS.—Ixilik egon zaiteze, mesedesz. Enagizue berotu.

ELIAS.—Entzun dozu zer esan daben.

TOBIAS.—Ezin zeinke esan zeuk, zeuk entzun ez dozunik.

ELIAS.—Zegaitik erabagi bat artu nai ez?

TOBIAS.—Jaungoikuaren Seme dala diño, Jaungoikuaren Seme.

ELIAS.—Eztakizu pekatu ori legeak ze eratan zigortzen daben?

(JESUS agertzen da errizaiñen artian. Arantzasko koroia dakin buruan. Tunika gorria lepoan.)

PILATOS.—(Leyotik erritarrei.) Zeuon aurrera ekarriko dautsuet ikusi dagizuen errurik ez daukala. Ara emen gizona!

ERRITARRAK.—Guk legia dogu ta lege ori beteaz il egin bear da.  
Il! Il!

PILATOS.—Nungua zara? (JESUS ixilik.) Zegaitik ez daustazu berbarik egiten? Eztakizú kurutzetu zeinkezana?

JESUS.—Goitik artu ezik etzenduke aginpiderik. Zugana ekarri nabenak pekatu andiago egiten dau.

ELIAS.—Ointxe bertan geure aurka diardu.

TOBIAS.—Ez ete da naiko orixe berori bein beragaz amaitzeko?

PILATOS.—(Erritarrei.) Gizonak! Pentsau egizue...

ERRITARRAK.—Ez dogu nai berba gozorik! Kurutzetu!

(Kantuz.) Kurutzean il! Kurutzean il!  
Josi! Josi! Kurutzean josi!

PILATOS.—Zegaitik baña? Zer dala ta?

ERRITARRAK.—Jaungoikozko pekatu egin dau. Il! Il!

(Kantuz.) Kurutzean il! Kurutzean il!  
Erun! Erun! Kurutzera erun!

PILATOS.—Zuen erregea kurutzetu?

ERRITARRAK.—(*Kantuz.*) Kurutzean josi! Kurutzean josi!  
Josi! Josi! Josi!

PILATOS.—Zer da beragan orretarako? Zer billatzen dautsazue?

ERRITARRAK.—(*Kantuz.*)

Bere odola jausi bedi  
gure ta semien gain.  
Kurutzean il! Kurutzean il!  
Josi! Josi! Josi!

(PILATOS'ek burua makurtzen dau zer egin estakiala.)

## O Y A L A

### VII. JERUSALEM'GO ALABAK

JESUS, MADALENA, M. JAKOBA, MARIA, SALOME ta beste EMAKUME  
ta ERRIZAIÑAK

*Kalbarioko bidean. JESUS kurutze azpian jausita dago. EMAKUMEAK errukiz dira. ERRIZAIÑAK euren ondoan, JESUS'en ondora urreratzea eragozten*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik. Doñua: "Agur, oi izar maitia".*)

Kurutze astuna lepuan,  
odola gorputz osuan.  
Kalbarioko mendi gañera  
ba darue Jesus ona.  
Astun dalarik kurutzia  
geyago bere penia.  
Aurrez aurre dauka ama,  
bere amatxo laztana,  
malko ta intziriz, miñez beterik  
berari lagundu nairik.  
Jerusalengo andra bigunak  
zotinka lertuaz muñiak.

JESUS.—(*Oyala zabaltzean, penaz beterik emakumiei begira. Doñua: "Pekatari triste..."*)

(X) Ez negar niregaitik  
Jerusalem'go alabak,  
gizonen pekatuakaitik  
egin beti negar.

EMAKUMEAK.—Kalbariko bidean  
odoletan ta oñazez,  
Zu orrela ikustean  
zelan guk negarrik ez?  
Oi Jesus, guk al ba gendu  
zugaitik zerbait egin,  
laster ziñake arindu  
zure atsekabe orreikin.

JESUS. (X) Borondate oneko  
andra errukiorrak  
eizuez zorioneko  
munduko gizonak.

EMAKUMIAK.—Jesus, Zure nekaldian  
odolaren txipristiñak  
izango dira guregan  
oroigarririk kutunenak.  
Sendo eutsi zure bidean,  
aurrera gogoz ta adorez,  
Golgota'ko tontorrean  
izango gara zure aurrez.

ERRIZAIN BATEK.—Naikua da. Arrera.

JESUS.—Zugaitik Aita eta gizonakaitik. Zure borondatea egin bedi.

Zure borondatea beti...

(*Nekez kurutzea artu ta ozta-ozta bere bidean asten da.*)

## O Y A L A

### VIII. KURUTZEAN

JESUS, MARIA, M. KLEOFAS, MADALENA, JUAN, RUBEN, BOOZ,  
JOSUE eta NOE (errizaiñak)

*Golgota tontorrean. JESUS kurutzean, il esiñik. Bere oñetan  
emakumeak eta JUAN*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik. Doñua: "Arboletan dan ederrrena".*—A. Donosti. C. 109.)

Kurutzetikan dindilizka  
Jesus maitea, esturik;  
bere oñetan zizpuruka  
andra koitadak mindurik.  
Ama ta Seme alkarturik  
kurutze baten, tristerik.  
Erri guztia zarataka  
Jesus onari txistuka,  
biotz gogorrak garraxika  
ezin baketan lagata,  
Jaungoiko Seme maitetsuai  
bakez iltzen ez laga nai.

(*Oyala zabaltzean abeslariak Valdes'en "Vinea mea"*  
*abestutene ariko dira. JESUS kurutzean larri, estu, egon eziñez.*  
*Emakumeak zizpuruka negarrez.*)

RUBEN.—(*Beste iru errizaiñekin batera sartuaz.*) Bestiak salbaten ez  
ekian, ba?

Booz.—Amesak ugari orrek, amesak.

RUBEN.—Bere burua salbau dagiala, al ba dau... Kristo baldin ba  
da... Jaunak autua ba da... esaten eban lez.

Booz.—Nun dira orain bere arrokeriak?

JOSUE.—Mirariak egiten ba ekian ba!

NOE.—Ori beintzat geuk ikusi genduan.

RUBEN.—Ba! Ez egizue sinistu olakorik. Zegaitik ez dau beretzako  
egiten?

JOSUE.—Zerbait eukanik ezin ukatu.

RUBEN.—Atsoen eta gaixoen zorakeriak. Arrokeria ibilli dau orrek,  
arrokeria.

Booz.—Orixo bai gero!

RUBEN.—Lekutan dago ointxe zerbait egiteko, berak esaten eban  
indarra ta Jaungoikotasuna ba dau.

MARIA.—Gizonen destain oneik bere intziriak eta estuardiak baño  
geyago minduten nabe.

JUAN.—Ez egiezu jaramonik egin, Mari.

MARIA.—Nayago neuke ezpata zorrotz bat biotzian, eurak entzun  
baño.

RUBEN.—Ia, ia! Jaungoikuaren etxia austu ta irugarren egunerako  
barriztauteko al etzifian ba?

JOSUE.—Ori baño errezago zeinke orain. Salbau zeure burua!

BOOZ.—Jaungoikoaren Semia ba zara, eratsi, eratsi kurutze orretatik.

RUBEN.—Eratsi! Eratsi! Orduntxe sinistuko dogu egia esaten zendula.

MADALENA.—Naikua da. Il nai ba dozue be, laga egiozue baketan ilten.

JOSUE.—Ixilik egon zaitez, ixilik egon zeure tokian.

RUBEN.—Ezagutuko ez ba gendu berori nor izan dan.

MADALENA.—Zer nitzan ardurarik ez egizue. Zer zarien kontu euki, zer zarien.

M. KLEOFAS.—Bakerik ez eiguzue ukatu gizonak, bakerik, ez ukatu beintzat.

JUAN.—Gaur ez dira gizon, basapizti baño. Ez jaramonik be egn.

BOOZ.—(JESUS'ri.) Demoniñuaren Seme izan zara ta ez Jaungoikuaaren Seme!

JUAN.—Bere amaren aurrean etzaiteze, mesedesz, orrela jardun.

BOOZ.—Ama? Ta zer? Guzurti baten ama da.

MADALENA.—Nok esan leike guzurtia zanik?

RUBEN.—Nok? Jaungoiko zala, altsua zala, errege zala, mirariak egiten ekiala... Nun dira bere al izeateok? Esana bat eta izana bi.

BOOZ.—Zegaitik ez dau ointxe agertzen zerbait, zerbait bakarrik, esaten ebana egitzuteko?

JESUS.—(Didarrez.) Aita...! Nire Jaungoikua...! Zegaitik laga nazu bakarrik.

RUBEN.—Eztozue entzuten? Aitak laga egin dabela, bakarrik itxi dabela. Ja, ja, ja! Laga! Bakarrik itxi...!

BOOZ.—Bere Semia izan ba litz, esaten eban lez...

MARIA.—Ezin zeinkie ukatu ala danik. Bere ama nazenez ondo dakit zelan sortua zan.

RUBEN.—Koitadia! Zuk eta berak, berak eta zuk, biok il biar zenden bardin, Jaungoikuaren kontra berba egin dozuelako.

JUAN.—Kurutzean noiz ilko dagoanaren erruki ez ba zarie be, laga baketan, baketan itxi mesedesz miñez min dagoan ama oneri.

MADALENA.—Amarik eztaukazuela esan lei.

BOOZ.—Ixildu zaitez.

JESUS.—(Larri.) Egarri naz.

RUBEN.—Egaririk be kentzen ez dakian Jaungoikua. Jaungoikua...!

BOOZ.—Ori be ezin, ori be? Zetarako dozu Jordan'go errebia, zetarako, dan dana al ba dozu, esaten zendun lez?

MARIA.—Al ba neu Jesus kutuna, al ba neu Seme...! Adoretu zaite!

NOE.—(JOSUE'ri.) Emoizu emon ozpin pixkat. Berak ezin dabena emon, erregetxu orrerri. (JOSUE'k kañabera baten luzatutem dautsa.)

BOOZ.—Etzendun esaten ba arda pixka bategaz bost millari edaten emon zeuntsala?

NOE.—Ointxe nai genduke ikusi olako bat ointxe.

MADALENA.—Zelan izan daike gizon batek ain biotz zital ta gogor?  
Gizonak etzarie zuek, demoniñuak baño.

MARIA.—Parkatu egiezue, Jesus!

JESUS.—(*Larri, larri.*) Dana... amaitu... da.

MARIA.—Zer, Seme, zer? Zer diñozu? Zer nai dozu?

JUAN.—Jesus, ez gure kezkarik. Jesus...! Jesus...!

JESUS.—Aita! Zure eskuetan lagaten dot nire gogua!

(*Garraxi luze bat egin ondoren, burua makurtuz ilten da.*)

MARIA.—Ene bada! Jesus! Seme! Laztana! Il! Il! (KLEOFAS eta MADALENA'ren eskuetan jausten da. Emekumeak negarrez geratzen dira, zotinka.) Abeslariak bigun bigun Dubois'en "Adoramus Te Christe" abetuko dabe:

ABESLARIAK.—Kurutze ortan Jesus  
gure esker ona artu.  
Zure eriotzaren bidez  
gaituzu askatu...  
Eskerrak Zuri, Kristo.

## O Y A L A

### IX. BAKARTADEAN

JESUS, MARIA, MADALENA, KLEOFAS, SALOME ta JAKOBA

*Golgota tontorrean, Kurutzepean, JESUS'en gorputza izara batekin estaldua da, lurrean. Bere ondoan, negarti ta mintsu, MARIA*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik kantuz. Doñua: "Arboletan dan ederre".*)

Gaizkille danak iges einda kurutzepian Amatxo.  
Seme ederra lurran gañean odolez usturik dauko.  
Izara zurin estalpean maitez begiratzen dautso.

Lur ikaraz ikaratuta errizaiñak iges dabe.  
Bakar bakarrik geratu da bere ama atsekabez.  
Mundu guztian ezin billatu beste ainbeste naigabe.

(*Abeslariak, bigun eta samur, "Bai, illik dago Jauna", erritar abestia kantaten.*)

MARIA.—(JESUS'en inguruan, negarti.) Ai Seme kutuna! Neure biotza!  
Ikusi barik ezin sinistu zure eriotzia! Norberak bizi ezik ezin igarri  
zenbaterañoka dan gorrotoaren indarra. Jesus...! Neure Jesus...!

(MADALENA, SALOME, JAKOBA ta KLEOFAS sartzen dira.  
MADALENA'k bigunki besarkatutenean dau MARIA.)

Ai Malen! Eskerrak zuri. Eskerrak benetan, Jesus ezagutu zendunetik maitasuna ta zintzotasuna erakutsi dautsazuzalako. Guztiz  
guztiak zure antzera jokatu izan ba lebe... semerik ez eusten  
ilgo, ez...! ez...! Ez eben kurutzetuko!

MADALENA.—Etxeratu egin biar ziñake, Mari.

SALOME.—Geuk egingo dogu Jesus'egaz egin biar dan guztia.

KLEOFAS.—Onezkero lertuta egongo zara.

JAKOBA.—Bai Mari, bai, etxeratu zaite.

SALOME.—Jesus'egaz egin danak eztau ka zuzenbiderik.

MARIA.—Ez! Nik ezin nei nire semiagandik urrundu, bere zeregiña  
ta nirea bardiañak diralako gizonen aldez. Jakin dagiela munduan  
izango diranak, berak Jaungoiko Aitaren borondathea beteaz gizonek  
odolez erosi biarra izan ba dau, nik be neure biotza odoletan  
urratuta dodala, nik be Jesus'en zeregin berbera dodalako gizonen  
aldez. (*Andiriko jaiki eta samur ta malkoz jenteari begira, kantuz:*)

Bidez bide ibil zaren guztiok,  
begiratu ta ikusi  
nun ete dan nire miña lakorik.

Nire Jaunak itxi nau negarpian,  
betirako samintasunpi.  
Ez deitu niri Eztitsu,  
Baizik deitu Samintsu.

Bidez bide ibil zaren guztiok...

(*Negarrari eutsi eziñik, JESUS'en ondora jausten da.*)

## O Y A L A

### X. ALLELUIA

IRAGARLE, ERRIZAIÑAK, MADALENA, KLEOFAS, JAKOBA, SALOME,  
AINGERUA, PEDRO, JUAN, JESUS, APOSTOLUAK,  
MUTILTXOAK, ERRITARRAK

*Illobiaren aurrean*

IRAGARLE.—(*Oyala zabaldu aurretik. Kantuz. Doñua: "Chori ere-siñula".*)

Aingerutxoak zerutik pozaren poz kantari,  
biztuera adieraziz negarrez direnari.  
Munduak ezin aztu bere aldezko opari,  
Jesus'ek emoniko ainbeste poz sari.

Jesus'en biztueria antxiña iragarria,  
irugarren egunera zala adierazia,  
bedi orain ta beti biotzen bake iturria,  
betiraun guztietan poz eta grazia.

(*Oyala zabaldueran illobi aurrean ERRIZAIN bi zaindari. Beste bi egal baten dagoz. Abeslariak barrutik, Bach'en Mateo Deunaren Nekaldiko azken abestia abestuten diardue;*)

ABESLARIAK.—Negar uluz, miñez beterik,  
deyez gaukazuz obira:  
Bizi bakez, bizi bake baketan.

Lo zaurien miñetatik...

Bizi bakez,  
bizi bake baketan.

Zure illobi deunak  
lotsatu begiz  
gogo argalak  
ta biotz zindoak  
bakez ase bediz.

Begiok, betiko,  
zugan ames begie...

(MADALENA, SALOME, JAKOBA ta KLEOFAS sartzen dire.)

MADALENA.—Jesus garbitzen gatoz, bera enbaltsamaten.

RUBEN.—Ezin lei. Guk agindua bete biar dogu.

KLEOFAS.—Etzaiteze olako izan.

SALOME.—Ba dakizue zuek andiagotan be ez ikusi egiten.

Booz.—Agindua agindu.

MADALENA.—Nok jakingo dau laga dauskuzuenik?

SALOME.—Ildako baten bildur zarie?

JAKOBA.—Tira, tira... Lagundu egiguzue arri au altzaten.

MADALENA.—Geuk bakarrik ez ete dogu jasoko?

Booz.—(Garratz.) Urreratu be ez egiteko!

KLEOFAS.—Sekula ikusi dozue ildako bateri errizaiñak ipinten zain-dari?

MADALENA.—Zegaitik ori?

SALOME.—Zeren bildur zarie? Il ondoren eztozue sartu ba?

MADALENA.—Illa illa da. Mesedez itxi azkenengo begirakada bat berari egiten.

KLEOFAS.—Etzaitez olako setatsu ta oker.

JOSUE.—Ixilik ez ba zagoze...

SALOME.—Iñok ez dau jakingo. Ez orren kezkari.

NOE.—(RUBEN'eri.) Etzaitez andrakin kopletan ibilli, bestela nastauko zaitue-ta.

KLEOFAS.—Eztogu bere gorputzik iñora eruango beintzat.

NOE.—Alperrik zabizela andrak, alperrik.

Booz.—Gu emen garian bitartian ez alperrik jardun.

MADALENA.—Beste edozein, lapurrik andiena izanda be, ikusi, igortzi, maitatu, jantzi, musuz jateko eragozpenik ez da egoten.

RUBEN.—Agindua agindu dala ta ixilik.

MADALENA.—Zegaitik erru barik gizonik okerrena lez kurutzian il dozuen Jesus onen erruki izaten dehekatu?

JAKOBA.—Jesus onegaz eztozuez beste bi il? Iñor ipiñi dozue eurak zaintzen?

Booz.—Barriketarik naiko entzun dogu ta jun zaitezze emendik.

MADALENA.—Areik lapurrik ziran. Lapur andiak. Erri guztia bildurtuta euken. Eta euren gorputzak lazstanduten, eurak biar dan lez gordeten edozein juan ba lei, zegaitik Jesus'egaz bardin egin ez? Zegaitik ez?

KLEOFAS.—Zeri dautsazue olako bildurra, zeri?

Booz.—Enagizue berotu andrak gauza txarrik egin ez daidan.

(Argi txinpartak bizi bizi. Trumoi otsa, Lur ikara. Errizaiñak lurrera jausten dira bildurres eta ikaraz. AINGERUA agertzen da ta illobiko arria baztertu egin ondoren, illobi egalian jarten da, dardaraz eta alkarri elduta kezkati diran emakumiei kantuz esaten.)

AINGERUA.—(Kantuz. Doñua: "Dugun orok kanta". "Kantikak" 311.)  
Ez ikaratu andra onak,

miraria egîña da,  
garaiturik eriotza  
bitzu da Jesus Jainkoa.

EMAKUMEAK.—Zer diñozu aingerua?  
Zelan dala bitzu Jauna?  
Ezin sinistu gure begiak  
ikusi ezik ber bera.

AINGERUA. Aurreko illobi onetan  
bakizue sartu ebela,  
kezkarik gabe begira.  
Jaunik ba ete dan bertan.

EMAKUMEAK.—Daigun danok pozik kanta  
miraririk andiena,  
alleluia daigun kanta,  
illetarik bitzu Jauna. (*Aingerua ezkutaten da.*)

(*PEDRO eta JUAN itsal datozi. Eurak ikusi orduko bidera urtetzen dautse emakumiak.*)

MADALENA.—Pedro! Pedro! Poztu! Alaitu!

KLEOFAS.—Jesus bitzu da!

EMAKUMEAK.—Bitzu da! Bitzu da bai!

(*PEDRO illobi aurrera dua. Aurretik JUAN.*)

SALOME.—Zer egin biar dogu orain?

PEDRO.—Jesus bitzu? Jesus bitzu? Nok daki ori?

KLEOFAS.—Bitzu da, bitzu da, bai. Aingeruak be adierazi dausku.

MADALENA.—Illobia utsik dago. Begiratu! Begiratu ondo!

PEDRO.—(*Illobia ikusi ondoren, zaratatsu:*) Auxe da miraria!

JUAN.—Berak esaten eban miraria!

PEDRO.—(*Zoro antzera.*) Bitzu da! Jesus bitzu da! Esaten eban lez  
bitzu!

(*Belauniko jarten dira, eskertsu.*)

PEDRO ta JUAN.—Jesus!! Maixua!!!

PEDRO.—Argitu Jauna mundu guztia zure biztueraren argitasunaz!

(*Atze aldian, JESUS agertzen da erdi erdian, zuri, argiz  
beterik. Errizaiñak eta irudian agertu diran emakumiak.*)

*Apostoluak eta aurreragoko irudietan agertu diran guztiak, Jesus-en aurrean lurra iota, makurtuta agertzen dira, itsututa lez. Abeslariak sutsu, gartsu, Haendel-en ALLELUIA asiko dabe. Jesus biztuaren aintza ta anditasuna egokiro ta bizi agertu biar da irudi onetan.)*

## A M A Y A

